



RICARDO ALDARONDO NEW DIRECTORS

“Egile berrien distira aurkitzeak pizten nau”

SERGIO BASURKO

Arraro egiten da Ricardo Aldarondo elkarriketatzea, beti elkarriketatzalearen aldean izan baita kazetari eta zinema-kritikari donostiarra. Aitortzen du poz handia hartu zuela Rebordinosek New Directors-eko epaimahaikide izateko deitu zionean: “Hainbeste urte Zinemaldiaren inguruan kritikari gisa, nahiz barruan, zuzendaritza- eta hautespen-batzordeko kide izanez, baita prentsaburu ere; eta orain, berriz, talentu berriak deskubritzeko aukera eman didate. Ez dago zirkulua birlitzeko modu hoberik”.

Zuzendari berrien atal honen ezaugarrrietatik zinemaren etorkizunerantz begiratzeko zabaltzen den zirrikita azpimarratzen du Aldarondok. “Oso polita da pelikula bat au-retikoz erreferentziarik gabe ikustea -iritzi du-, aurreiritzirik gabe, begirada garbiarekin. Egile berri baten filmak ez du zertan perfektua izan beharrik, nahiko da liluratzen zaituen zerbaiten printzak, distirak antzematea. Hartara, zinemagile berri baten lana biribila ez izan arren,



ALEX ABRIL

asmoa ona bada, balekoa iruditzen zait”, epaitu du epaimahaikideak.

Gaur egungo zinema joera, posibilitate eta teknika berrien amalgamabat da, aitzitik, Aldarondoren ustez: “zuzendari berriek duten arriskuetako bat klasikoaren garrantzia bazterutzear datza. Zenbait gazteren ezaugutza film garaikideetara mugatzen da, zinema Indiana Jonesekin hasizela uste dute. Eta inoiz deskuiduan John Ford edo F.W. Murnauaren filmlaren bat ikusten badute, zur eta lur geratzen dira orain mende bat egiten zen zinemaren modernotasunari erreparatuta”. Hala, zinemaren maisuetatik ikasitakoa baliatuz obra berritziale bat egitea zer den jabetzeko Scorseseren edo Tavernierren lanak ikustea gomendatzen du zinema-aditu donostiarak.

Bere gaztaroan liluratu egin zuen Iván Zuluetaaren *Arrebato* filma edo beranduago Laurent Canteten *Ressources humaines* bezalakorik aurkitzea ez du espero, alabaina, “ian berrien artean liluratzen nauen film bakar bat aurkitzen badut, nahikoa da”.

Horrez gain, New Directors sailak biltzen dituen mundu zabaleko askotariko begiradak eta egikerak nabarmentzen ditu. Eta ez du aipatzeko utzi nahi azken urteotan kultura munduan eta gizartean oro har “zorionez gailentzen ari den emakumeen berezko begirada”.

A film critic comes full circle

The film and music critic, Ricardo Aldarondo, has not only been a regular contributor to numerous film and music magazines, but has also been a member of the Management and Selection Committee and Head of the Press department at the San Sebastián Festival. He is really looking forward to being a member of the New Directors Jury as he thinks it's a wonderful opportunity to come full circle judging films in a really important section that some extraordinary talents have emerged from. He feels that a film doesn't need to be perfect but that it should contain hints that this director is going on to great things in the future. Another really positive aspect for him is the extensive presence of female directors among the wide variety of trends that can be seen in this section.

